

#### 4. KOSTUAK:



Gure aplikazioa sortzerako orduan hainbat kostu izango ditugu. Batetik, hau bera sortzeko espazioa behar dugu; bulego edo

ofizina bat. Beraz, honen alokairua ordaintzeko dirua beharko dugu. Negozioa ondo doiala ikusiz gero, irabazitako diruaren zati bat bulegoa alokatu beharrean erosteko izango da.



Beste alde batetik, bulegoko ordenagailuak erostea izango da beste kostu bat. Printzipioz gure taldekide bakoitzarentzat ordenagailu bat, hau da, guztira lau ordenagailu erosiko dira. Denborarekin pertsona gehiago kontratatzea beharrezko dela ikusten badugu, hauentzako ere erosi beharko dira lanerako ordenagailuak. Telefono bat ere erosiko da eta beharra dagoela ikusiz gero, idazkari bat kontratatuko dugu.

Azaldu bezala, hasieran bost bat lankide izango gara. Gure laurok eta informatikari edo programatzailea (beharraren arabera), eta azken honeri ere soldata ordainduko zaio. Lan taldea handitzen joanez gero, bakoitzari dagokion soldata ordainduko zaio.

Azkenik, bidaia eta garraio agentziekin kolaboratzen dugunez, lortutako diruaren zati bat beraiei egokituko zaie. Portzentaia agentziokin negoziatuko da.